

Nola sentituko zinateke eskola publiko batean ikasiko bazenu, eta zugaran mila aurreiritzi izango balituzte? Galdera hau erantzuteko Leizaran BHIko esperientzia pertsonaletatik abiatuko gara.

Aurreiritziz beteriko mundu batean bizi gara: “Ez duzu Leizarangoa ematen”, “Euskaraz badakizu?”, “Leizaranen zer ospatzen da, *la fiesta de los moros*?”, “Leizaranen ez duzue ezer ikasten”... Benetan normala iruditzen zaizkizue horrelako zurrumurruak? Okerrena da galdera eta esaldi hauek egiten dituzten gehienak heldu “adimendunak” direla, eta ideia hauek gazteagoak diren pertsonen irakasten dizkietela. Asmo hauek burutik kendu behar ditugu, batez ere besteekiko errespetuarengatik.

Horrela tratatzen gaituzten arrazoi handienetako bat, institutuan garbi ikusten den kultura eta erlijio aniztasunarengatik da. Gehienek ikuspuntu negatibo batetik tratatzen dute egoera hau; hala ere, kultura eta erlijio desberdinak izatea kulturalizatu egiten gaitu, eta anitzak diren pertsonetako gure tratua onartu ahalbidetzen du. Adibidez, institutuan jai bat ospatzen da abenduro, non herrialde desberdinetako jaki tipikoak ekartzen diren. Bertan, ikasle guztiok jaki hauek dastatzeko aukera izten dugu eta; benetan esperientzia paregabea da.

Hasierako esamesei dagokionez, aipatu beharrik daude ikasketen buruzko komentarioak. “Leizaranen ez duzue ezer ikasten” eta horrelako beste hainbat iruzkin jasaten ditugu egunero. Gauza bat argi dago, ikasi nahi duenak ikasiko du, nahiz eta hemen edo munduko beste leku batean izan. Azken finean, GUZTIOK ikasketa berberak jasotzen ditugu, derrigorrezkoak dira eta. Lehengo ikasturtean (2023-2024), Gipuzkoako selektibitateko notarik altuenak Leizarandik ateratako ikasleek lortu zituzten. Gazte hauek ez zitzaizkien axola non jaso zituzten ikasketak; benetan inporta zitzaizkien gauza bakarra unibertsitateko joatea zen, horregatik ahal izan zuten esfortzu guztia jarri eta merezitako saria jaso zuten.

Gazteak egunen batean munduaren jabe izango dira, baina egoera eta ikuspuntu hauen menpean hezitzen baditugu, diskriminazio eta gutxiespeneko gizariek biziko gara. Benetan nahi al duzue horrelako gizariek batean bizi? Benetan, ez al dugu ezer egingo horrelakoekin behin betikoz amaitzeko?

Inkesta baten bidez ikastetxeko ikasle batzuei honako galdera hau botatu genien: “Zein izan da Leizaranen ikasi duzuen gauzarik garrantzitsuenak?” Hauek izan ziren jasotako erantzunak:

- 1 %20,9 errespetua
- 2 %15 baloreak
- 3 %13,7 kultura aniztasuna ikastea

Galdeketa bat egin diogu institutuko irakasle bati eta hauek izan dira bere erantzunak:

1. Beste ikastetxeetan baino tolerantetagoak dira hemengo ikasleak. Ados zaude honekin?

Dudarik gabe; aniztasunak horrek ematen du, balore aniztasuna.

2. Bulo bat da hemen ez dela ezer iksten. Azken urteetako zein ikasle aipatuko zenituzke ibilbide profesional bat egin dutena?

Adibidez, nire iazko batxiko ikasle asko ibilbide oso polita egiten ari dira: lau edo bostek ingenitza bat iksten ari dira, beste bik kazetari karrera eta beste batek medikuntza. Karrera ikasteaz gain, goi-mailako zikloko ikasle batzuk ere oso ibilbide interesgarria egiten ari dira.

3. Erreportajearen aipatzen dugu askotan entzuten dugula “ez duzu Leizaraneko ematen” esaldia. Zer egin daiteke, zure ustez, klasismoa alde batera uzteko?

Azken finean, klasismoa ez da hezkuntza arloan bakarrik ematen. Ondo legoke jendea informatua egotea, horrelako komentarioak saiesteko. Muturrean eman behar zaie bat; baino gehiagori, gure gainetik daudela uste baitute.